Norbanako elebiduna hizkuntza biz baliatzeko gai den pertsona da. Berdin dio nola eskuratu edo norekin erabiltzen dituen eta zertaz edo zein modutan hitz egiteko diren. Berdin dio ere norbanako hori, era berean, kide deneko gizartean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen den (Katalan Herriak) edo bakarra baino ez den erabiltzen (Portugal). Pertsona jakin eta -ahal den neurrian- isolatu batez mintzatzen ari gara.

Elebitasun hau (eleaniztasuna) agian behar modura inposatzen ari da honezkero. Egia esan,1987 urte honetan, inglesa ez jakiteak gizarte-sustapenerako eta kultur unibertsalitaterako sarbideak betatzen edo ixten ditu adibidez. Eta hau gertatzen zaie ez bakarrik katalan hiztunei, baizik eta portugesei edo andaluziarrei ere, eta baita frantsesei ere, *frantsesaren unibertsalitatea* eta guzti.

Lurralde elebiduna esaten zaio hizkuntzaren aldetik argiro zedarritutako zona bitan banatzen den espazio geografikoari. Zona batean, H1 erabiliko litzateke eta bestean H2 . Hasiera batez, konponbide honek ez du zertan gatazka iturri izan behar. Ez da, ordea, sarriegi ikusten den konponbidea.

Egoerarik arruntena, aldiz, *elebitasun soziala* izendatuko duguna da, non lurralde unitate (estatua, hiria...) baten barruan, eta nolabaiteko era ordenatu eta arautua gorderik, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen duten norbanako multzoak (talde sozialak osatzen dituztenak) agertzen baitira: hizkuntza bata eurena da, modu *naturalez* (familia...) ikasia, eta bestea, beste talde bati dagokiona. Hizkuntz txandaketa hau sozialak diren erabilera arau batzuek eratu izaten dute eta desorekaturik egon izaten da, ez baita berdintsua izaten hizkuntza biotarako.

Hori dela eta, egoera hau gatazkatsua izaten da. Azken batez, elebitasun sozialak *hizkuntz gatazka* dagoela agertarazten digu (7).

Hizkuntza bata *norberarena* eta bestea (kanpokoa dena) eskuratua diren heinean, banaketa bat gertatzen da hizkuntz funtzioetan, funtzio sozial desberdinak bete eta burutzen dituztelarik.

Horrela jabetzen da H2 ordura arte H1ek betetzen zituen *hizkuntz eremuez* (erabilera eremuak). A taldeko kideen (H1 erabiltzen dutenen) elebiduntzea *behar* modura inposatzen da. Izatez, H2 ez ikasteak, eremu, jarduera eta gizarte-sustapenerako espektatiba batzuetatik marginaturik geratzea dakarkie Ako kideei.

Tarteka, elebiduntzea -hots, H1 ikastea- erabakitzen duten B taldeko hiztunak ere ager daitezke. Baina hau aukera pertsonala da eta ez beharkizun soziala.

Hementxe datza, hain zuzen ere, Ako elebidun eta Bko elebidunen arteko diferentzia. Lehenek *halabeharrez* ikasi dute H2; Bko kideek *borondatez* ikasi dute H1.

Ondorioz, H2 ez jakitea estigma, marginazioa bihurtzen da Ako kideentzat, *bizitza berrian, modernitatean,* parte hartzea galarazten dielarik (hura H2k bideratua baita).

Elebitasun soziala planteatzen den kasu guztietan -begira itzazue katalan, galiziar eta euskal hizkuntz komunitateak- H2k (gaztelania eta frantsesa) hiri, industria, prestigio eta botere guneak hartzen ditu, eta H1 (katalana, galiziera, euskara) tradiziozko, nekazari, familia eta iraganeko eremuetara mugatzen da.

Hortaz, elebitasun sozialak sortu duen hizkuntz gatazkak hautabide bat, aukera bat, dakar irtenbide bezala: hizkuntza bata ala bestea. *Hizkuntz ordezkapena ala normalkuntza* . Ordezkapenak apurka-apurka H1 uztea esan gura du. (Ordezkapen mota bat den) normalkuntzak H1 berreskuratzea inplikatzen du; H2 utzita, alegia .

Hala ere, teorian, gatazkatsua izango ez litzatekeen elebitasun sozial kasu bat plantea genezake (*elebitasun sozial orekatua*), zeinean *Boterea* (soziala, ekonomikoa, politikoa, prestigioa...) gizarte talde bien artean banatua bailegoke. Teorian ere, elebidunak talde biotan agertu beharko lirateke. Elebitasun ez-ordezkatzailea izango litzateke, orduan.

Baina, Joshua Fishmanek adierazi duenez: "argi omen dago, era berean, eleaniztun komunitate linguistikoetan edo hizkuntza sareetan egonik, ohizko hizkuntzaren hautaketa urrun dagoela oharkabean egindako momentuko nahikundea izatetik, baita, ikuspuntu probabilistiko huts batetik gutxienez, horrela izan zitekeen kasuetan ere (Lieberson, 1964). Erabilera *egokiak* agintzen du teorian aukeran dauden hizkuntza edo aldaeretatik bakar bat hautatuko dutela solaskide taxu jakin batzuek une taxu jakin batzuetan gai mota zehatz batzuei buruz hitz egiteko" (9)..

Horrek esan gura du, noski, hizkuntza bata edo bestearen erabilpena *erregulartasun* batek determinaturik dagoela eta azken hau sozialki *normaltzat* onartuak diren *arau* batzuen pean dagoela. Hau da, hizkuntz jokabidea *erregularra* da eta, hortaz, aurrikusia eta *behartua*. Hori dela eta, dilemak argia dirudi: A ala B, H1 ala H2.

Normalena da talde batek boterea biltzea, (zuzen edo zeharkako) koakzio botere guztia barne, eta hura erabiltzea *beheko* taldeko kideen elebiduntzeko gogo edo beharra sortarazteko. Hauxe da gertatu dena *gutxiengo egoera* bizi (edo jasaten) duten hizkuntz talde guztietan. Beronen eredu dira katalana, galiziera, galesera, okzitaniera eta hizkuntza *gutxituen* zerrenda luze osoa.

Lorezinak dira, hortaz, *hirugarren bidea* edo *erdiko marra*. Hautatu beharra dago. Galiziar batek, Xabier Vilhar Trilhok, argiro adierazi du:

> "qué desagraça que para subir um, tenha que baixar o outro! Assí é, e os piedosos intentos de conseguir un ilusorio equilibrio entre as linguas em conflicto, estam condenados ao fracaso. Um conflicto lingüístico (...) nom se pode resolver com um compromisso, porque as soluçons em jogo som excluientes, nom se podem compartir por metades" (10).

Gatazka, elebitasun soziala, gainditzeko dagoen irtenbide bakarra, beraz, da hizkuntz lurraldetasuna ezartzea, lurralde elebitasuna alegia. Hizkuntza baten ordezkapen soziala eta honekin batera bestearen normalizazio soziala.

Erran nahi baita: normaldu behar den hizkuntza *normala* bihur dadila lortzea. Egoera sozial guztietako, gizartearen bizitzako eremu publiko guztietako, erabilera hizkuntza bihur dadila. Era berean, honek guztiak beste hizkuntzaren atzerakada darama berarekin. Bata aurrerantz eta bestea atzerantz, halabeharrez.

Hizkuntz lurraldetasunaren ezarketa, hortaz, gaindiketarako irtenbide gisa inposatzen da, irtenbide ekologikoa: leku bat gauza bakoitzerako eta gauza bakoitza bere lekuan, izan liteke eslogana.

Belgikako kasua da, adibidez. Hizkuntza desberdinen erabilera soziala gorabehera, Belgika frantsesez elebakarra izan zen ofizialki 1898 arte. Gatazkak (frantsesez egiten duten waloniarrak eta nederlanderaz egiten duten flandriarrak) erakarri zuen *ezegonkortasunak* gutxi gora-behera elebitasunezkotzat jo zitekeen araubide orokor bat ezartzera eraman zuen 1960 arte. Eta azken erabakia, 1963tik aurrera, izan da frantsesa eta nederlanderaren zonen arteko *anbilinguismoa* delako araubidea ezartzea, hizkuntz lurraldetasunarena alegia. Esan dezakegu *elebakartasun bikoitzeko* herria dela. Hiriburua bakarrik, Brusela, jotzen da elebidun zona, garrantzi maila bereko zona (esaldi) biren arteko lotura kopulatibo, batasunezko, gisa, Txepetxen adierazpen egokian esana.

3. ELEBIDUNTZE PROZESUA

Arrazoiak zein-nahi direla ere (inbasioa, menpe eta menpekotasun ekonomiko, politiko, kulturala, etab.), hizkuntza talde bi (A eta B) ukipenean jartzen direnean lurralde berean (A taldearen lurraldean), normalean, talde bietako bata bestea baino posizio hobeagoan kokaturik egoten da. Hori dela eta, talde menperatzailearen hizkuntza (Bren hizkuntza = H2) zabaldu egiten da Ako kideen artean. Hau da, modu *erregular* (eratu) nabari batez, menperatutako taldeko (Ako) kideak Bren hizkuntza ikasten eta erabiltzen -*elebiduntzen* - hasten dira.

Prozesu *erregularra* dela diogu galesera, okzitaniera, bretoiera, euskara, katalana eta enparauen moduko kasuei so egiteak prozesuen etapen, erritmoen eta ezaugarrien garapen sistematikoa, gutxi gora-beherakoa, antzematea ahalbideratzen digu eta.

Esan beharra dago prozesu historiko bati buruz hitz egiten ari garela, nekez beha baitaiteke, bere osotasunean, pertsona baten bizitzan zehar eta, gutxienez, hiru belaunalditara hedatzen baita. Exageratu gabe esan dezakegu aro baten hasi eta hurrego baten amaitzen den prozesua dela.

Halaber, egoki da azpimarratzea delako prozesuak -egia esan, prozesu multzoa da- aipatzen genituen erregularitateak gordetzen dituela, izaera desberdineko ezaugarri argi batzuei jarraikiz: denborazkoak (adinak: gazteak/zaharrak), espazialak (kalea/baserria), pertsonalak (gizonak/emakumeak), sozialak (goi klaseak/behe klaseak), funtzionalak (gune formalak/informalak), eta abar.


Baina iraupen luzeko prozesu historiko bat ez da guztiz era uniformean agertzen. Jite historikodun beste edozein prozesu bezala, gorakadak eta beherakadak, aurrerakadak eta atzerakadak, *sprintak* eta etapa geldoak izaten ditu, unean uneko eta lekuan lekuko faktore berezi askoren pean beti, hala nola, gizartearen egitura

demografikoa, hizkuntz kontzientzia, gizartearen modernizazio maila, borondate politikoa, egoera juridikoa, etab.

Etapa hauek makro-prozesu bati dagozkio, hortaz, zeinaren barruan elkar sortarazten duten aldaketa *kuantitatibo* (hiztun kopuru eta erabilera maiztasunari dagokionez) eta/edo *kualitatiboak* (erabilera arauei eta erabilera diferentziatuen eremuei dagokienez) sartzen baitira, Lluis Aracilek bereizten dituen bezala (11).


Esanik utzi dugu, baina azpimarratu nahi dugu, elebiduntze prozesua horixe dela, *prozesu* bat, eta berarekin daramatzala *dinamismo* , mugimendu ideiak. Prozesu dinamikoa da (*ikasketa* berez), aldaketa prozesua; ez egoera estatikoa.

Nabarmendu beharreko beste ideia nagusia zera da, elebiduntze soziala zati, segmento edo parte bat dela prozesu zabalago baten: *hizkuntz ordezkapen* prozesuan edo *glotofagian* . Gehien bat baiezta daitekeelako hizkuntz ordezkapen prozesua elebiduntzean hasten dela -abiada puntua bertan dagoela- eta elebakarduntzean amaitu (H1 ahaztuz).




Eskema hau beste (azpi)etapekin osa dezakegu oraindik, hala nola, *H2ko sasielebitasuna* -lehenengo eta bigarren etapen artean kokatuko genukeena- eta *H1eko sasielebitasuna* -bigarren eta hirugarren etapen artean jarriko genukeena eta ikasketa eta ahaztearen fasei dagozkienak.

Are grafikoagoa izan daiteke beste eskema bat egitea eta bertan ongi adieraztea ikasketa prozesu oro neketsua dela eta goranzko zentzuan doala eta uzte edo ahazte prozesu oro, ordea, bizkor eta arina dela eta beheranzko zentzuan doala.



Eskema hau katalan hizkuntz komunitatearen egoerari - *oraindik* - osotoro orokorgarria ez bada ere, bai baiezta dezakegula prozesu burutua dela maila sozial eta hiri esparru batzuetan batez ere. Esan beharrik ez dago era desberdinez hasten dela denetik zabaltzen eta joera hedakorra duela behe maila sozialetan zein landaguneetan. Prozesuaren alderanzketa eragitea lortzen ez badugu, katalanaren iraungipena denbora -urte gutxiko- arazoa baizik ez da.



Nahiz eta hurrengo gai baten -gutxiengo egoera, hizkuntz ordezkapena eta/edo glotofagiaren deskribapenari bereziki eskainia- elebiduntzearen etapa edo aldiei eta ondoko elebakarduntzeari arreta handiagoa jarriko diegun, merezi du oro har berauei buruz mintzatzea orain.

Horretarako Calvet (1981), Aracil (1982), Aracil (1983), Strubell (1982) eta Toni Artiguesen (1985) lanei jarraikiko gatzaizkie.

0. Herri elebakarra.

1. A eta B taldeen arteko ukipena. Bi hizkuntzaren hedapena era sektorial eta hautatuan.

Lehen aldi honetan, (hirietan bizi diren) botere goi mailek H2 -kanpoko hizkuntza- ikasten dute. Orobat egiten dute, noski, merkatari handiek, burgesiak, juristek, artistek eta intelektualek (denak B taldearen zerbitzura jartzen direlarik). Sorospidez, maila sozial hauetatik hurbilen dauden hiriko biztanleek ere ikasten dute.

Hala ere, batuez gero, kopuruz ez-nabarmena den multzoa baino ez dute osatzen horiek denek, itzelezko balore kualitatiboa eduki arren. *Herri xeheak* elebakar dirau. Herri xehea gehiengo kuantitatiboa da.

Aldi honetan, Bko hizkuntza (H2) politika, administrazio edo justizia arloko hizkuntza modura inposatzen hasten da, *hizkuntza ofizial* gisara alegia.

2. Bigarren aldi honetan elebiduntzearen hedapen geografikoa nabarmentzen da batez ere: kale/baserria bitasuna agertzen da.

Berebiziko inportantzia duen etapa da, *funtsezko* aldaketa soziolinguistikoak gertatzen dira eta. Kaleko H1eko elebakardunak elebidundu egiten dira erabat (H2 ikasten dute), orduko elebidunak ziren beste giza-mailak H1 uzten hasi eta H2ko elebakardunak bihurtzen diren bitartean. Etapa honetan, hortaz, H1eko hiztun kopuruaren galera hasten da, ikaste-uzte izendatu dugun koerlazioak eraginik. Hirian, H1eko elebakartasuna desagertu eta H2ko elebakartasuna agertzen da lehenengoz.

Ondoriozko osaketa soziolinguistikoa honela labur daiteke:

Boterea	Elebakardunak (H2an)
Kaletarrak	Elebidunak
Baserritarrak	Elebakardunak (H1ean)

Une honetatik aurrera, H2ren ofizializazioa elebiduntze osoaren alde eragingo duten jarduera sorta baten isladatuko da: alfabetatze eta eskolatzea, ahozko eta idatzizko herri komunikabideak, eta abar.

3. Hirugarren aldi hau Calvetek *Glotofagia burutua* izendatu duenari dagokio. (Azpi)etapa bitan banatzea proposatzen dugu.

3.1. H1eko elebakardunen *desagerpena* da bere ezaugarria, Ako kideen *elebiduntze osoa*, alegia.

Arrazoiak honakoak dira: a) (oraindik H1ean elebakardunak ziren) zaharrenen heriotza fisikoa; eta b) H1eko gainerako hiztunek H2 ikasten dute.

(Azpi)etapa honekin hizkuntz ordezkapen (edo glotofagia) prozesuaren une erabakigarria burutzen da: H1eko elebakardunen desagerpena.

Katalan hizkuntz komunitatean jazoera hau XX. mendean gertatu da: ez dago jadanik katalan elebakardunik. Katalanez mintzatzen garen guztiok gazteleraz -ere- egiten dugu (edo frantsesez Ipar Katalunian eta italieraz Alguer-en).

Gertakari honi *aldebakarreko elebitasuna* deitu dio Lluís Aracilek eta hizkuntz komunitate jakin batek jasaten duen *gutxiengo egoeraren* ezaugarri nabarmenen eta ohizkoenetako bat izaten da.


Izatez, gutxiengo egoeran dagoen hizkuntza batez mintzatzen garenok (katalana, galiziera, euskara, adibidez) *elebidunak* gara, gaztelania -edo frantsesa, katalanen eta euskaldunen kasuan- *behar baitugu*, derrigorrez, nor bere herrian bizi ahal izateko. Kasu teoriko batez, geure hizkuntzetan elebakardun geratuko bagina, gizarte-bizitzaren ekintza eta aukera inportantetan eta askotan parte ez hartzera beharturik geundeke, beraietan gaztelaniaren (edo frantsesaren) ezaguera eta erabilera behar izaten baita.

Aitzitik, (Galizian, Espainia aldeko Katalan Herrietan edo Hego Euskadin bizi diren) gaztelera hiztunak lasai asko *bizi daitezke gazteleraz*. Hizkuntza hau ez da *beharrezkoa* bakarrik, baizik eta (buru)*aski* ere aukera guztietan eta (gure herrietako) jende guztiarekin komunikatzeko eta gai guztiei buruz berba egiteko.

Laburtzeko, esan dezakegu katalanaren, euskararen eta galizieraren elebakartasuna estigma marginatzaile bat dela eta arazoak eta trabak baino ez


daramatzala berarekin. Beste aldetik, gazteleraren elebakartasuna, gaur egun, ez da egingarri bakarrik, ohikoa ere baizik.

Hortaz, baiezta dezakegu katalan hiztunok gaztelera (edo frantsesa Ipar Katalunian eta italiera Alguer-en) hiztunon azpimultzoa garela.



A: katalan hiztunak

B: gaztelera hiztunak




Ederki azaltzen digu egoera hau Miquel Pueyok eginiko koadroak (12). Argi ikusten da katalan hizkuntza komunitateko kideak beste hizkuntz komunitate glotofagikoetan sarturik daudena. K.H.K.ren zatikapena ere ikus dezakegu.

Ez dugu ahantzi behar, gainera, aldebakarreko elebiduntzea izendatu dugun etapa hau bitartean, elebidun zirenetatik asko H1 (katalana...) utzi eta H2ko elebakardun bihurtu direla, gaztelera hiztunak alegia.

3.2. Ordezkapenaren erabateko burutzapena baino ez da geratzen, H1 erabat uztea, elebidunen desagerpena (katalanaren iraungipena...). Denbora arazoa baizik ez da.

Hala ere, erabateko ordezkapenari jarkiko zaizkion indarrak (pertsonalak, sozialak, politikoak) agertuko dira batzuetan. *hizkuntz leialtasun* (13) izeneko baliabidea edo *hizkuntz politika positiboa* bezala, non helburua prozesua alderanztea izango baita.

Katalan Herrietan, erraz ikus daitekeenez, azken (azpi)etapa hau baino ez da geratzen prozesua ixteko. Alderanzketa, normalkuntza, -hori bai- hizkuntz komunitatea osatzen duten kideen baliabide eta borondatearen pean dago.



4. ELEBITASUN SOZIALAREN AZKEN EMAITZA

Adierazi dugunez, elebitasun sozialaren emaitzarik, amaierarik, normalena hizkuntz ordezkapena da; A taldeko kideek (H1 hiztunek) Bren (H2ren) hizkuntza *bertakotzea*, alegia. Argiago oraindik: norberaren hizkuntza uztea eta iraungitzea eta kanpoko hizkuntza hartzea; erdalduntze modu bat etxetik mugitu barik.

Prozesua alderanz daitekeela adierazi dugu ere; hots, hizkuntz gatazkan aldeko ebazpena lortzea, zeina ordezkapen mota bat baita; H2rena kasu honetan. Ordezkapenarena moduko taxueradun prozesu historikoa da hau. Aldaketa kuantitatiboak (hiztun kopurua eta erabilera maiztasuna) baita kualitatiboak (hizkuntz funtzioen eta erabilera eremuen berreskurapena eta hedapena) ere suposatzen ditu, noski. Hizkuntz normalkuntza izenpean ezagutzen da, hizkuntzaren desagerpenari ipin dakiokeen alternatiba bakarra, hain zuzen ere. Nolabait, *kontraprozesu* bat da.

Era berean, hizkuntz normalkuntza prozesuak faltaezineko ezaugarri bat inplikatzen du: prozesu kontzientea izatea. Normalkuntza ezina da hizkuntzaren kolokako egoeraz kontzientziarik hartu barik, erabaki (pertsonal, sozial eta politikoa) eta ekintza egoki, efikaz eta zartadako batez kargu egin barik. Luís Aracilen hitzetan -berriro ere- esateko: "normalkuntza benetako makroerabakia da eta, adibidez makroerabaki ekonomikoak bezala, komunitate baten etorkizuna zuzentzera jo eta nolabaiteko boterearen erabilpena suposatzen du"(14).

Esan beharra dago normalkuntza *beti* dela posible. Beharrezkoak diren baldintza sozial eta politikoak sortzea, hizkuntz komunitatearen borondatea eta ekintza soziala besterik ez da behar. Horrela frogatzen du, muturreko adibide gisa, hebraieraren kasuak Israelen.

Elebitasun sozialaren hirugarren emaitza bat izan daiteke hizkuntz aldaera berri bat (H3) agertzea, sortzea, *ukipenean zeuden hizkuntza* bien (H1 eta H2) *hibridaziotik* aterea eta *pidgin* izena hartzen duena, zeina *krioilo* bihurtzen baita bertakotzean eta bide naturalaz (familia) zabaltzean.


Esan beharrik ez dago *pidgin* (eta ondorengo *krioilo*) bat sortzeko prozesua, *pidginizazio* (*bertakotzea* eta *krioilizazioa*) deitua, ordezkapenaren eta/edo normalkuntzaren taxuera halako prozesu makrohistorikoa dela.

Hizkuntza bietatik bateko hiztunak (edo bietakoak agian) erabiltzen hasten dira berez Arena (H1) ez Brena (H2) ez den hizkuntz aldaera berri bat (H3), zeinaren hizkuntz oinarria talde menperatzailearen aldaera (H2) izaten baita normalean. Izatez, ezagutzen ditugun *pidgin* gehienak hizkuntza kolonialetan oinarritzen dira, hala nola, inglesa, frantsesa, portugesa edo nederlanderan.

Esan beharrik ez dago, katalan deitzen ditugun hizkuntz aldaera desberdinak aurkitzen direnako hibridazio egoera (gaztelania eta frantsesarekin) kontuan harturik, gure artean ezin zaiola itzuri fenomeno honi.

Ezkortasunari gutxi emana den francesc Vallverdú soziolinguistak horrela seinalatzen zuen Michael Sttubsen (15) *El llenguatge i l' èscola* liburuari eginiko hitzaurrean, *catanyol* izena ezartzen baitzion "azaltzen ari omen den katalana eta gaztelaniaren arteko hibridoari".

Elebitasun sozialetik ondoriozta daitezkeen prozesu eta emaitza desberdinen koadro bat egiten saia gaitezke. Esan beharrik ez dago behin-behineko eta, logikaz, azaleko eskema bat dela.



5. ELEBITASUNAREN INSTRUMENTALIZAZIOA

5.1. ELEBITASUNAREN MITIFIKAZIOA (16)

Hizkuntz aldaera batzuk *dialekto* , *patois* edo dena delako izenez estigmatizatzeaz, edo sinpleki euren existentzia bera ukatzeaz gain, beraien erabileraren *kontra* gehien erabili den bitartekoa izan da hizkuntz komunitate batzuei datxekieneko elebidun izaeraren goraipamen eta laudorioa.

Horrela aditu zuen Lluís Aracilek eta horrexegatik salatu zuen elebitasunaren defentsa honen ideologizazioa.

> "Elebitasunaren hipostatizazioa eta goraipamena benetako gatazka egoera baten islada dira maila ideologikoan. Herri baten non hizkuntza bik uneoro elkarri oztopoak jartzen dizkion eta batak bestea egozten duen, elebitasuna balore goren bezala mitifikatzeak gatazkaren sahiestezineko tirabirak neutralizatzera -idealki gutxienez- eramaten du ezbairik gabe. Elebitasuna laudatzea hizkuntzen adiskidetza bilatzeko modu bat da garbiro, aukera antagoniko bi bateragarri egitea".

Artikulu berean, Aracilek adierazten zuen "elebitasuna batik bat mito bat dela", zeinaren helburua gatazkan dauden hizkuntza bietatik bakar baten hautaketa *galerazten* saiatzea baita, eta honek guztiak -maila sinbolikoan eta ez benetako

hautaketa mailan funtzionatzen duenez- abantailako egoeran dagoen hizkuntzaren alde jokatzen du, gaztelaniaren alde, alegia.

Elebitasunaren goraipamena, beraz, hautatu beharra saihesteko geure buruari egiten diogun iruzurra da. Eta, logikaz, goraipamen honek gazteleraren hautaketa justifikatzeko balio du.

- *Egizu gazteleraz, elebiduna naiz eta!*
- *Elebidunak garenez, egin dezagun gazteleraz, horrela denok ulertuko dugu eta!*

Eta abar, eta abar...

Valentziar Herrira eraman dezagun gaia: Nortzuk dira elebitasunaren defendatzaileak? Nork aldarrikatzen du valentziar elebitasunaren *zorioneko naturaltasuna* ? Ez dago zalantzarik: katalanaren *utziera* justifikatu -ordurako gaztelera hiztun elebakardunak izanda- eta valentziar *izenpean* jarraiki nahi dutenek.

Non agertzen da ustezko elebitasun hau? Elebidunak dira hezkuntza arloak, komunikabideak -prentsa, irratia, telebista, zinema-, lan, merkataritza edo administrazio munduak, eta abarrak? Erakutsi beharrik ez dago eremu sozial eta publiko hauek gazteleraz elebakardunak soilik direla ia-ia.

Eta norbanakoaren arloari, jendearenari, dagokionez, nor da elebidun? Aurreko atal baten azaldurik utzi dugu jadanik. Valentziera hiztunak bakarrik gara elebidun. Aldebakarreko elebitasuna da *gurea* . Eta gazteleraz soilik hitz egiten -eta idazten- duen biztanleria haziz doa etengabe egunetik egunera.

Banakako elebitasunaren aldebakartasunak eta erabilera sozial elebiduna orekatua izan daitekeelako faltsutasunak erakusten digute, hain zuzen ere, elebitasuna mito hutsa dela.

Zer dago benetan? Nahiko argi dago elebitasun desorekatu -ezberdin- egoera baten aurkitzen garela, non hizkuntza batek lekuz aldatzen (ordezkatzen) baitu bestea, bai hiztun kopuruari dagokionez eta bai betetzen dituen funtzioei dagokienez. Hizkuntz ordezkapen prozesu baten aurrean gaude, beraz, non elebitasunaren mitifikazioak *lasaigarri* papera jokatzen baitu.

5.2. ELEBITASUNA NORMALTASUN BEZALA

Hizkuntza bien erabilera bateragarri egin asmoz erabiltzen den beste argudioetako bat da elebitasuna hizkuntz normalkuntzarantz abiatzeko dagoen bide *posible* bakar modura aurkeztea.

Esan beharra dago bide honen defendatzaileek behin ere ez dutela azaltzen *normalkuntza* esatean zer adierazi nahi duten. Behin ere ez dute azaltzen, adibidez, prozesuan determinagarriena dena: helburua, prozesuaren amaiera. Ez dute behin ere azaltzen normalkuntza esatean prozesu bat ulertzen duten zeinaren azken helburua *normaltasuna* den. Inor iradokitzera ausartu bada, ez du, berak ere, behin azaldu *normaltasuna* esatean zer adierazi nahi duen. Eta badirudi inor bide bat (prozesu bat) urratzen hasten denean argi eta agerian egon behar duen gauzetako bat hartu behar den norabidea, norakoa, dela (amaiera = helburua).

Hizkuntz normalkuntza ez da jazoera puntual ez estatikoa. Normalkuntzaz hitz egitean beste prozesu baten alderanzketa (ordezkapen) prozesuaz ari gara zehazki, zeinaren azken helburua *hizkuntza normal baten eraikuntza soziala* baita, hau da, normaldu gura den hizkuntzaren erabilera betearen hedakuntza sozial eta publikoa, hizkuntz erabileraren arauen aldaketa. Hortaz, normalkuntzak eginkizun sozial argi eta zartadakoa, ageriko eta publikoa, behar du.

Iruzurra -norberari egina lehen-lehenik- da, orduan, lortu nahi diren helburuak ez argitzea eta ez finkatzea. Hori, erdietsi gura den helburua *elebitasuna* ez bada behintzat -aparatu legezale, konstituzional eta ez-diskriminatzailez mozorroturik agertu arren-.

Esan dezagun -azaletik bada ere- gizarte moderno baten hizkuntza *normal* orok betetzen dituen funtzioetako bat bere *funtzio diskriminatzailea* dela. Horrela adierazi dute *Llengua i raó d'Estat* (17) (Hizkuntza eta Estatu arrazoia) agiriaren idazleek:

> "Baldintza historiko hauen pean (gizarte industrial eta modernoa), hizkuntza batek utzi egiten dio eragin etxetiar eta kulturalistadun komunikazio tresna hutsa bakarrik izateari eta, horrez gain, boterearen banaketarako bitarteko eta botere hau sendotzen deneko ingurune bilakatzen da; hizkuntza, azken batez, diskriminazio faktore bihurtzen da, zeinaren ondorioz, gehien nabarmentzen direnek, aginte gehien dutenek, are aukera gehiago daukate, banaka eta taldeka, beralen interesak betetzea lortzeko. Eta hain da zurruna dinamika hau, non hizkuntza bat, arrazoiak zein-nahi direlarik, prozesu laboral-produktiboan eta boterearen aldeko burrukan ezindurik geratzen bada funtzio diskriminatzaile hau lortzeko, kultur eta nazio nortasunaren adierazgarri agertarazten zueneko

hasierako funtzio diskriminatzaile hura ere galtzera kondenaturik aurkitzen baita halabeharrez.

> Hau dena argitu bezain laster, erraz ikusten da gure herriko edo kanpoko politikoek hizkuntz arrazoiengatik inor ez dela diskriminatua izango edonon atseginez errepikatzen dutenean, halaxe egiten dutela bai ezjakintasun xalo batek, baina suizida/genozida nolanahi ere, mugiaraziak direlako, bai asmo txar kontziente batek eraginik, benetan gertatzen ari denaren mamia ostendu nahi digutelako: hizkuntza bakar batek bideratzen duela -gurea moduko gizarte baten- saihetsezina den diskriminazioa, gaztelaniak hain zuzen ere".

Oraingo instituzio politikoetako hizkuntz politikaz arduratzen diren sailetako buruen adierazpen eta ekintzetan gailentzen den ikusmoldean, elebitasuna normalkuntzarantz ematen den pausu bezala ulertzen da. Bai Galiziako Xuntan, bai Eusko Jaurlaritzan eta bai Katalan Herrietako erregio gobernu desberdinetan. Esan beharrik ere ez dago ikusmolde hau Espainiako oraingo Konstituzioaren hirugarren artikulua oinarri duelarik abiarazten dela, autonomi estatutu eta normalkuntza lege direlako horietan gauzatua.

Begira ditzagun diskurtsu elebidunzale -eta ustez normalkuntzazale- honen adibide batzuk.

Honela mintzatzen da Kataluniako Generalitateko hizkuntz politikaren oraingo zuzendari orokorra den Aina Moll (18):

> a) "Gure legezko markoa berri eta handia da: Autonomi Erkidego ez-gazteleradunen nazio hizkuntza berreskuratu nahi da beraien nortasun ikur gisa, baztertu gabe horregatik orain arte menperatzailea izan den hizkuntza, zeinak ofizial izaten jarraitzen baitu estatuan ofiziala delako".
>
> b) "Herritar guztien elebitasuna beharrezkoa da, hortaz. Eta, beste alde batetik, ez dago galtzik horretan. Uste onez Katalan Herrietarako elebakartasunaren alde dauden gure herrikideek ulertu behar dute gaur egun gure herrietan izan daitekeen elebakartasun bakarra gaztelerarena dela. Horrela da gure herriek, estatuko gainerakoek bezala, demokratikoki onartu duten Konstituzioak gaztelera jakitera behartzen dituelako espainiar guztiak (gogoratu nahi dut, bide batez, 1977an Mallorcan hasi genuen "koofizialtasunaren aldeko kanpainak" eta zeinak Espainiako hizkuntza guztien koofizialtasuna eskatzen baitzuen estatu osoan, bakoitzaren nagusitasun logikoarekin bere lurraldearen barruan, porrot egin zuela tamalgarriro eta ez gaztelerazaleen erruagatik, gure jendearenagatik baizik); baina objetiboki horrela da ere gaztelera denek ezagutzen dutelako eta biztanleriaren portzentaia on batek -Kataluniako kasuan %50era heltzen dena- familia hizkuntzatzat daukalako. Ezina da erret-aginduaz erauztea, ezta zilegia egingo lukeen ordenakuntza konstituzional baten jabe izango bagina ere: hizkuntzak ez dira dekretuz erauzten -zorionez: horri esker iraun du gureak Decreto de Nueva Planta delakoa eta frankismoa gorabehera-, eta gazteleraren erabilera debekatuko balitz, hizkuntza hori berezkotzat daukaten herritarrek beraren defentsa legitimoari ekingo liokete, eta hizkuntz gerran jausiko ginateke ezinbestean".

Aina Mollen testuen irakurketa zoli batek *haren* helburuak zeintzuk diren argituko digu:

a) Konstituzioarekiko errespetua -legeak aldaezinak bailiran eta *diskurtsu* jakin baten adierazpen eta produktu ez balira bezala-.

b) Elebitasun indiskriminatua.

c) *Hizkuntz gerrari* itzuri egitea -hizkuntz gatazka esan nahi duela suposatzen dugu. Gai honetaz, adierazita utzi dugu gatazka hau azalarazi *beharra* dagoela, posible izan dadin horrela hizkuntz ordezkapen prozesua alderanztea eta normalkuntza prozesu bati hastea, ostera.

Beste soziolinguista batek ere -soziobilinguista, Toni Artiguesen (1985) hitzetan- eusten die, gaur egun, Aina Mollenak moduko planteamentuei. Francesc Vallverdú dugu bera (19).

> "En una palabra, se trata de combinar una política de catalanización que al mismo tiempo rehuya las imposiciones antidemocráticas y respete el derecho de los castellanohablantes a usar públicamente su lengua. Este planteamiento se relaciona con dos principios esenciales: el catalán como lengua propia de Catalunya debe ser conocido, después de un período prudencial, por todos los ciudadanos de la Comunidad Autónoma, independientemente de cual sea su lengua habitual; el castellano como segunda lengua de los catalanes no puede ni debe perder ese carácter, pero al mismo tiempo debe evitarse su eventual instrumentalización contra la plena normalización lingüística del catalán. He aquí el gran reto del conflicto lingüístico en los Países Catalanes".
>
> (Francesc Vallverdú, soziolinguistikaren sortzaileetako bat)
>
> "Ezkerreko indarrek debiauki burrukatu behar dute gure herriko katalanduntzeak gazteleraren desagerpena edo bazterketa erakarriko dueneko asmakeriaren kontra (...). Gaztelera ezin da, eta ez du behar, Kataluniatik desagertu, eta ez arrazoi ideologiko edo mistifikatzaileak direla eta (Konstituzioaren 3. artikuluaren baldintzapen batzuek iradoki dituztenak, adibidez), baizik eta arrazoi soziologiko eta kulturalengatik (...) lehenengo, katalan hiztunak kontziente direlako hura bigarren hizkuntza modura behar dutela; eta bigarren, gaztelera hiztunek -zeintzuek katalana bigarren hizkuntzatzat hartuko baitute- gazteleraz publikoki baliatzen jarraiki ahal izango dutelako, beronen erabilera Estatutuak bermatzen du eta".
>
> (Francesc Vallverdú)

Ekarri ditugun testuak halako diskurtsu soziolinguistiko baten froga argia dira -diskurtsu elebidunzalea-; (in)posibilismoak eta gaur eguneko egoera politiko-legalak argiro hipotekatua eta determinatua den diskurtsua, alegia.

Diskurtsu bat zeinaren funtsezko ezaugarria helburu *normaltzaileak* gobernuan dauden indar politiko-sozialek ezarririko eta onarturiko markora egokitzea baita. Azken mende honetan euren hizkuntza *normaldu* duten herrietan, flandriarrak kasu, gertatu den alderantzizkoa. Belgikako estatuak *elebidun estatua* bihurtu behar izan du, herritarrek ez zutelako elebidun izatea gura, hain zuzen ere.

OHARRAK

(1). Ikus VALLVERDU, F.: *Aproximació crítica a la sociolingüística catalana* , Bartzelona, Ed. 62, 1980.

(2). SANCHEZ CARRION, J. M. (TXEPETX): "Bilingüismo, diglosia y contacto de lenguas", *A.F.V. "Julio de Urquijo"* , Donostia, 1976.

(3). WEINREICH, U.: *Languages in contact* , Haga, Mouton (1. arg.1953). Guk gaztelaniazko Itzulpena erabili dugu, *Lenguas en contacto* , Ediciones de la Biblioteca de la Universidad Central de Venezuela, 1974.

(4). SANCHEZ CARRION, J.M..: "Bilingüismo, diglosia y contacto de lenguas " .

(5). SANCHEZ CARRION, J.M.: "BilingUismo, diglosia y contacto de lenguas".

(6). SANCHEZ CARRION, J.M.: "BilingUismo, diglosia y contacto de lenguas".

(7). Posible da, ostera, hizkuntza bi espazio sozial baten alde lehiatzea, baina inolako jarkiera edo gatazka sortzeko indarrik egon gabe horregatik. Kasu hauetan, *gatazka* beharrean -eta ukaezina denez hizkuntza bi daudena: aurrerantz doana bata eta atzerantz bestea- *hizkuntz ordezkapen* kontzeptua erabiltzea merezi du, beronek ez baitu, hark ez bezala, inolako gatazkakortasun kontzienterik derrigor adierazi behar. Hizkuntz ordezkapenaren sinonimo gisa *glotofagia* kontzeptua ere erabil dezakegu, Calvetek egiten duen bezala (1981). Katalan soziolinguistikaren barruan, zentzu horretan erabili du Toni Artiguesek (1985) glotofagia kontzeptua, "hizkuntz ordezkapen prozesu bat deskribatzeko egokiago eta grafikoagoa da" eta.

Azpimarratu behar da ere elebitasun soziala *diglosiarekin* nahastu dela askotan. Hurrengo gaian zehaztuko dugu puntu hau. Hala ere, esan beharra dago diglosia egoerak azaltzeko Fergusonek egin zuen eskema (hizkuntza bereko) aldaera linguistiko bik espazio funtzional diferentziatuak betetzen zituzten kasuei bakarrik zegokiela. Fishmanek handitutako eskemarekin soilik egingo litzaiguke posible hizkuntza desberdin biren funtzioei aipamen egitea. Dena den, Toni Artiguesek (1985) seinalatzen duenez, "diglosiak prozesu honetako oso momentu zehatza deskriba dezake bakarrik, hizkuntza edo aldaerai biren arteko erabilera eremu (formala/informala) banaketa argia aurkezten duen huraxe, hain zuzen ere; oraingo egoera ez da eskema honetara mugatu ahal izateko bezain erraza".

(8). Aurreko oharrean suma zitekeenez, *normalkuntza* eta *ordezkapenaren* arteko hautabidea, aukera, planteatzea posible izan dadin, guztiz beharrezkoa da *aurretik* gatazka kontzienteki plantea dadila. Gatazkarik ez badago, ez dago hautabiderik. Hau da, ez dago ordezkapen edo glotofagia prozesua alderanzteko posibilitaterik .

Gatazkak dilema bat sortzen du. Gatazka ezak -elebitasun soziala benetakoa denean- hizkuntz ordezkapena betearaztera darama zuzenean, H1en amaierara alegia; glotofagia prozesua burutzera, azken batez.

(9). FISHMAN, J.: "La relació entre micro i macro-sociolingüística", *Llengües en contacte*, 3, Bartzelona, 1984.

(10). VILHAR TRILHO, X: "Notas sobre caracterizaçom sociolinguistica do galego...", *Sociología de las lenguas minorizadas*, Martutene, Ed. Ttarttalo, 1986.

(11). ARACIL, Ll.: "Substitució lingüística", in *Papers de Sociolingüística* , Bartzelona, Ed. la Magrana, 1982.

(12). PUEYO, M.: "Actitudes lingüísticas: la hipervaloracion del prestigio y otros factores", *Sociología de las lenguas minorizadas* , Martutene, Ed. Ttarttalo, 1986.

(13). *Hizkuntz leialtasun* kontzeptua Uriel Weinreichek (1974) elaboratu zuen eta honela definitu: "principio -cuyo contenido específico varía de caso en caso -en nombre del cual los individuos se reúnen consciente y explícitamente para resistir los cambios en las funciones de su lengua (como resultado de un cambio de lengua) o en su estructura o vocabulario (como consecuencia de las interferencias)". Hurrengo gai baten garatuko dugu zabalago kontzeptu hau.

(14). ARACIL, Ll.: Conflicte lingüístic i normalització a l'Europa Nova", Papers de Sociolingüística, Bartzelona, Ed. la Magrana, 1982.

(15). VALLVERDU, F: "Pròleg" in STTUBS, M.: *El llenguatge i l'escola* , Bartzelona, Ed. 62, 1982.

(16) Kontsulta, batez ere, ARACIL, Ll.: "A valencian dilema", in *Identity Magazine* , Valentzia, 1966. Orobat, ARACIL: "El bilingüisme com a mite", in *Papers de Sociolingüística.* Kontsulta ere, NINYOLES, R.: *Conflicte lingüístic valencià* , Ed. Tres i Quatre, 1969.

(17) Aina mollen testuak "La qüestió català/castellà en el marc de la diversitat institucional actual" izenburupean Valentzian emaniko hitzaldi bateko zati dira. Testu osoa *Els Països Catalans: un debat obert* liburuan aurki daiteke (Valentzia, Ed. Tres i Quatre, 1984).

(18) Francesc Vallverdúren testuak Toni Artiguesen (1985) *Mecanismes de Poder* liburutik atera ditugu.

(19). LAMUELA, X. eta beste: "Llengua i raó d'estat", AVUI , 13/ 4/84.

ELEBITASUNA ETA HEZKUNTZA

1998-99 ikasturtea

Irakaslea: Ane Beldarrain

HELBURUAK:

Irakasgai honen helburu orokorra ondoko hau da: ikaslea, soziolinguistika, psikolinguistika eta heziketa elebidunari buruzko oinarrizko ezagupenez baliatuz, eskolak euskararen normalizazio prozesuan dituen funtzio eta mugetaz jabetzea eta Euskal Herriko hezkuntz plangintza elebidunaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea .

Heziketa elebiduna egoera soziolinguistiko jakin batean sortu eta garatzen da. Horregatik, programaren lehen atalean, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren azterketari ekingo diogu, egoera hori ulertzeko asmoz. Programaren bigarren atalean, hezkuntza elebidunaz ideia nagusiak landu ondoren, Euskal Herriko gaurregungo irakas-sistema elebidunaz arituko gara.

EDUKIAK:

1.- EUSKAL HERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN AZTERKETA

1.1.- Hizkuntz ukipena eta hizkuntz gatazka Euskal Herrian. Euskararen egoera diglosikoa. Aldebakarreko elebitasun soziala. Euskal hizkuntz komunitatearen desegituraketa. Diskriminazio legala.

1.2.- Gatazkaren aurrean: hizkuntz ordezkapena ala normalizazioa. Hizkuntz eskubideak. Hizkuntz normalizazioa.

1.3.- Euskararen normalizazio prozesua: urratsak, baldintzak eta oztopoak. Euskal hizkuntz komunitatearen trinkotzea. Funtzioen berreskurapena. Euskararen lurraldetasuna.

1.4.- Irakaskuntza eta hizkuntz normalizazioa. Eskolaren eragina eta mugak euskararen berreskurapenean.

2.- ELEBITASUNA ESKOLAN: IRAKASKUNTZA EUSKARAZ

2.1.- Hezkuntza elebiduna. Hezkuntza elebidun kontzeptua. Programa elebidun motak: trantsizio, mantentze eta murgiltze programak. Programen deskribaketa eta ebaluazioa.

2.2.- Hezkuntza elebidunerako marko teorikoa. Testuinguru ezberdinetan eta programa elebidun ezberdinetaz egindako ikerketatik atera daitezkeen printzipio orokorrak. Programa elebidunen dimentsio politikoa.

2.3.- Hezkuntza elebiduna Euskal Herrian. Euskara irakaskuntzan: berrikusketa historiko laburra. Euskal Herriko gaurregungo irakas-sistema elebiduna zertan den. Euskara EAEko eskoletan. Hizkuntz ereduen eztabaida: emaitzak eta etorkizuna. Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza: zenbait gogoeta.

EBALUAKETA:

Lauhilabetekoaren bukaeran froga idatzia egingo da. Azterketan klasean azalduko denari buruz eta kurtsoan zehar banatuko diren testuei buruz galdetuko da. Asignaturaren edukiaz gain hizkuntzaren erabilera zuzena ere eskatuko da.

2.-Hezkuntza elebidunaz

ARTIGAL, J.M. (1989): *La immersió a Catalunya,* Eumo, Vic.

ARNAU, COMET, SERRA eta VILA (1992): *La educación bilingüe,* ICE Universitat Barcelona - Horsori, Bartzelona.

ASKOREN ARTEAN (1992): "Euskal Herrian eta Kanadan murgiltze bidean"(monografikoa), *Isilik,* 14. zk.

BASURKO, F. (1990): "Ikastolaren normalizazioaren historia labur bat", *TANTAK,* 4. zk., 33-61.

BASURKO, F. (1993): "Euskara: Hezkuntz-sistemaren hezurdura", *BAT,* 10. zb., 23-35.

CUMMINS, J. (1983): "Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües", *Infancia y Aprendizaje,* 21. zk., 37-62.

CUMMINS, J. (1992): "Hezkuntza eleaniztunaren alde psikolinguistikoak", in A.A.: *Hezkuntza Eleaniztunari buruzko I. Nazioarteko Jardunaldiak,* Gaztelueta fundazioa, Areeta-Getxo, 135-152.

ERRIONDO eta ISASI (1990): "Eskola Publikoa hizkuntz-ukipen egoeran", *TANTAK,* 4. zk., 89-109.

ERRIONDO, ISASI eta RODRIGUEZ (1993): *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna* , Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

IDIAZABAL, I. (1984): "Euskara eta eskola", in A.A.: *Hizkuntza minorizatuen soziologia,* Ttartalo, Donostia, 167-181.

IDIAZABAL, I. (1993): "Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza: zenbait gogoeta", *BAT,* 10. zb., 11-21.

MOLLA, T. eta PALANCA, C. (1990): "Irakaskuntza, hizkuntza eta gizartea", *Jazten,* 2. zk., 5-27.

SANCHEZ, M.P. eta TEMBLEQUE, R. (1986): "La educación bilingüe: sus características y principios fundamentales", *Infancia y Aprendizaje,* 33. zk., 3-25.

SIERRA, J. (1992): "Ereduak: emaitzak eta etorkizuna", in A.A.: *I. Jardunaldiak Soziolinguistikaz,* Bilbo, 143-159.

SIERRA,J. eta OLARIZEGI,I.(1993): "Las lenguas en el sistema educativo del País Vasco", in SIGUAN, M. (koord.): *Enseñanza en dos lenguas,* ICE Universitat de Barcelona, Bartzelona, 59-70.

SIGUAN eta MACKEY (1986): *Educación y bilingüismo,* Santillana, Madril.

VILA, I. (1983): "Reflexiones en torno al bilingüismo y la enseñanza bilingüe", *Infancia y Aprendizaje,* 21 zk., 4-22.

VILA, I. (1989): *Reflexions sobre l' educació bilingüe: llengua de la llar i llengua d' instrucció,* Departament d' Ensenyament, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.

ZABALETA, F. (1994): *Bigarren Hizkuntzaren Irakaskuntza Murgiltze-ereduan,* Zubia, Iruñea.

ZABALETA, I. eta DAVILA, P. (1990): "Euskal Eskolaren lenen urratsak", *TANTAK,* 4. zk., 21-31.

Aldizkariak:
HIK HASI (Euskal heziketarako aldizkaria)
INFANCIA Y APRENDIZAJE
COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION
TANTAK (Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Aldizkaria)